

Trantsizioaren garaiko legedi antiterrorista espainiarra: hautsok ekarriko dituzte lohiak

Alexander Uriarte Cuadrado
Euskal Herriko Unibertistatea (UPV/EHU)

Zergatik izan zuen legedi antiterroristak hain garapen handia Espainiako trantsizioaren garaian? Egile batzuek aipatu izan duten bezala, garai horretako indarkeria politikoaren maila altuak azalduko luke hori? Nolako eragina izan zuen trantsizioaren garaiko politika antiterroristak erregimen demokratikoaren garapenean? Hurrengo lerroetan aurreko galderei erantzuten saiatuko gara. Horretarako, legedi antiterroristaren bilakaera historikoa aztertu eta zenbait testuingururekin harremanetan jarriko da. Halaberharrez, zenbait mugimendu ezkertiarren bilakaerarekin ere harremanetan jarriko da legedi hori.

GAKO-HITZAK: Legedi antiterrorista · Mugimendu ezkertiarak · Trantsizioa · Indarkeria politikoak.

Spanish anti-terrorist law in the transition time: As you sow, so shall you reap

Why was the development of the anti-terrorism legislation so large during the Spanish transition period? As some authors have pointed out, was the high level of political violence at that time the reason for this development? How did the anti-terrorism policy in the transition period affect the development of the democratic rule? I will try to give an answer to those questions on the following lines. In order to do it, I will focus on the evolution of the anti-terrorism legislation, establishing the relationship between these regulations and their different contexts. At the same time, I will also try to establish the relationship between this legislation and the evolution of some leftist movements.

KEY WORDS: Anti-terrorist laws · Left movements · The transition · Political violence.

1. Sarrera

Trantsizioaren garaian gertatutako indarkeria politikoaren harira, zenbait ikuspuntu sendotu dira historiografian (Aparicio, 2017: 328-351). Batetik, urtetan zehar trantsizioaren izaera eredugarria babestu izan duten egileak daude (Arostegui, 2000: 10; Casanova, 1996: 37-46). Egile horiek garai horretan gertatu zen indarkeria gutxitu edo, are gehiago, ukatu egin dute. Bestetik, azken urteetan zenbait egileak aurreko ildoak gezurtatu dute; izan ere, berebiziko garrantzia eman diote aipatutako indarkeriari (Baby, 2012; Casals, 2016). Ez hori bakarrik, Xavier Casals egileak trantsizioaren prozesua baldintzatzeko gaitasuna egokitu dio garaiko indarkeriari: «Lo que este estudio pretende demostrar es que el efecto de la violencia política fue opuesto al que se le atribuye (pues estabilizó en lugar de desestabilizar) y alteró el curso político de forma decisiva» (Casals, 2016: 564). Bestalde, historiografiak honela aurkeztu izan du legedi antiterrorista: batetik, delitua erreprimitzeko tresna gisa; bestetik, mugimendu ezkertiarrek sortutako indarkeriaren ondorio gisa. Diogunaren adibide bat Eduardo González Calleja (2013: 462) egilearen aipamen honetan aurkitzen dugu: «La transición democrática permitió una fugaz suavización de la legislación represiva de los delitos políticos heredada del franquismo, pero el recrudecimiento de las acciones violentas impuso el retorno a una legislación de excepción». Era berean, Sophie Babyren (2009: 197) aipamen hau adierazgarria da: «La legislación antiterrorista, que en apariencia debía mucho al legado dictatorial, fue también una adaptación moderna al nuevo desafío representado por el enemigo terrorista».

Aurreko lerroetan aipatutako ikuspuntuak kontuan izanda, lan honetan proposatzen da legedi antiterrorista garaikidearen errepaso laburra egitea. Ikuspuntu historiko eta kritiko batetik, harremanetan jarriko dira legedi horren jatorria eta haren ondorengo garapena garaiko zenbait testuingururekin. Arreta jarriko dugu mugimendu ezkertiar erradikalen ustezko antipoda politikoetan kokatzen diren horietan, horrela, trantsizioaren garaiko indarkeria politikoaren ikerketan gure ekarpena egin ahal izateko. Azken batean, ukaezina da jatorri ezberdinetako indarkeria politikoak egon zirela eta ez indarkeria politiko bakarra (legedi antiterroristak agerian uzten duenez). Beste gauza bat da neurtzea datuen arabera indarkeria horiek, horietako bakoitzak, izan zuten eragina.

2. Legedi antiterrorista garaikidearen jatorria

Lan honen hasieran aipatu dugunez, egile gehienentzat legedi antiterrorista da terrorismoaren delituari erantzun errepresiboa ematen diona. Halere, legedi horren ikerketa kritikoak (legedia bere testuinguruekin harremanetan jartzeak) zalantzak sortzen ditu. Horren adibide argia da historiografiarentzat «lehenengo legedi antiterrorista»-ren jatorria dena, hau da, XIX. mendearen bukaeran indarkeria libertarioa erreprimitzeko sortutakoa:

Destacable la respuesta del legislador frente a los atentados anarquistas, atentados que algunos autores definen ya como el nacimiento del terrorismo moderno. David Rapoport resalta que el terrorismo moderno comenzó en la década

de 1880: donde surgieron pequeños grupos en muchos países, grupos capaces de aterrorizar a las masas porque la invención de la dinamita les dio poderes que ningún grupo pequeño había tenido antes y la bomba ha continuado siendo la principal arma del terrorismo moderno (Aparicio-Ordás; Fanjul, 2016: 17).

Espanian ere Errestaurazioko erregimenak legeak egin zituen anarkismoaren aurka¹. Halere, ez dirudi lege horien helburua izan zenik indarkeria libertarioari aurre egitea bide judizialaren bidez. Kontuan hartu behar da garai horretan erregimenaren botereek fisikoki eliminatzen zituztela terroristatzat hartzen ziren pertsona edo kolektiboak. Beraz, «legedi antiterrorista»k ez zeukan nor erreprimitu. Gai honen harira aipatzekoak dira Severiano Martínez Anido jeneralak eskainitako datuak. 1920-1922 urteen artean, «pistolismo» deritzonaren testuinguruan, Bartzelonako Gobernadore Zibila izandako jeneral horrek «sindikalismo iraultzaile»aren aurkako errepresioa zuzendu zuen. Hiru urte eskas horietan libertarioen aurkako 800 ekintzaren eta, horien ondorioz, hildako 500 libertarioen berri eman zuen Martínez Anidok (García; Tusell, 1981: 36). Testuinguru horretan, aipatzekoak dira, halaber, Bartzelonako 1921eko gertakariak, zeinetan 311 preso libertario exekutatu zituzten ihes egiten saiatu zirelako aitzakiarean (Tejera Pinilla, 2018: 259).

Laburbilduz, Errestaurazioko erregimenak (eta Europako beste herrialdeetako erregimenek) sortutako legediaren helburuak ekintza biolentoen egileak erreprimiteza baino areago ideologia libertarioa mapa politikitik ezabatzea bilatu omen zuen. Luis Angel Aparicio-Ordás eta Maria Luisa Fanjul egileek honela adierazten dute:

Importante fue elaborar una legislación de carácter especial para hacer frente al problema global del anarquismo: no solo se trataba de combatir los atentados con una legislación en la que se establecían nuevos tipos penales y un agravamiento de las penas hasta el momento establecidas, sino que su objetivo era el de hacer frente a una doctrina que el poder político consideraba en sí una amenaza contra el Estado (Aparicio-Ordás eta Fanjul, 2016: 17).

3. Monarkia edo Errepublikak. Tresnak eta helburua ez dira aldatzen

Bigarren Errepublikaren garaian, «1934ko urriko iraultza» izenez ezagutzen diren gertakariak izan ziren. Jakina denez, gertakari haiek eragin nabarmena izan zuten Asturiasen. Armadak eta Guardia Zibilak bolboraren keaz ito zuten iraultza hura, eta egun batzuk geroago gobernuak legistatu zuen gertakari haien harira. 1934ko urriaren 17an *Gaceta de Madrid* aldizkari ofizialaren bidez indarrean sartu zen legeak gertakariaren protagonistak erreprimitzeko oinarriak ezarri zituen, eta, besteak beste, «herri baten biztanleria izutu» izana leporatu zitzaion (*Gaceta de Madrid*, 1934: 379).

1. Aipatu beharra dago XX. mendera arte «terrorista» terminoa gutxitan aipatu zela garaiko prentsan. Aipatu izan zenean atzerriko herrialdeetan, bereziki Errusian, izandako indarkeriazko ekintzen harira egin zen. Hortik aurrera termino hori gero eta gehiago aipatu zen, neurri handi batez, Bartzelonan mugimendu libertarioak gauzatutako indarkeriazko ekintzen harira. Halere, 1936 arte «terrorista» terminoa ez zen agertu Espainiako legedian. Ikusi *La Vanguardia* eta *ABC* egunkariaren hemerrotekak.

Aipatutako legeak heriotza-zigorra aurreikusten zuen arren, ez zuen eragin —ezta ondorengo legedi antiterrorista cedistek² ere— aurkari politikoen desagerpen fisikoa. Batetik, Julián Casanova (2007: 133) egileak emandako datuen arabera (300 bat polizia zein militar eta 1.100 bat iraultzaile hilik) ondoriozta daitekeenez, iraultzaren unean gertatu zirelako hildakoak; bestetik, emandako 23 heriotza-zigorretatik 21 bertan behera geratu zirelako (Thomas, 1967: 100). Lege horiek errepresio ideologikoa ekarri zuten: espetxeratze masiboak (Jackson, 2005: 154; Thomas, 1976: 167)³, tortura, prentsa ezkertiarren debekua, alderdi ezkertiarrek osatutako udalbatzen deuseztatpena, edo adierazpen- eta pentsamendu-askatasunaren debekua (Casanova, 2007: 137-151).

Aldi berean, 1934ko urriko gertakarien ondorio gisa ulertu behar da Espainiako legedian «terrorismo» terminoa lehenengo aldiz agertu izana, 1935eko azaroaren 23an onartutako legean agertu baitzen. Lege hori 1933ko «alferren eta gaizkileen legea» osatzera zetorren eta 1935eko azaroaren 28an argitaratu zen *Gaceta de Madrid* aldizkari ofizialean. Kutsu cedista zuen lege horretan ez zen batere zehaztu zertan zeutzan aurreikusitako «terrorismoko delituak», ez eta haien goraipamenak ere (*Gaceta de Madrid*, 1935: 1.715). Hilabete gutxi batzuen buruan, ezkerrek gobernua berreskuratu zuenean, Azañaren Errepublikak «terrorista» delitua tipifikatu zuen lehenengo aldiz Espainiako legedian. 1936ko maiatzaren 23an onartutako legeak honela zioen: «Los que se cometan o intenten cometer con armas, siempre que tengan un móvil terrorista o, simplemente, una motivación política o social, y los que se realicen o intenten realizar mediante el uso de explosivos» (*Gaceta de Madrid*, 1936: 1.803). Alejandro Martínez (2015: 27-28) egileak aipatu duenez, tipifikazio horren ekarpen funtsezkoena izan zen asmo terrorista asmo politiko edo sozialetik bereiztea.

4. Francorekin egoerak ez zuen hobera egin

Frankismoaren garaian legedi antiterroristak izandako bilakaeraren arabera, bi denboraldi ezberdin zehaztu ahalko genituzke. Lehenengo denboraldia, kronologikoki bigarrena baino askoz luzeagoa dena, gerra zibilean hasi eta hirurogeiko hamarkadaren amaieran bukatu zena izango litzateke. Bigarren denboraldia, «frankismo berantiarra» deritzona, bosturteko eskas batean garatu zena izango litzateke, hirurogeita hamarreko hamarkadan hasi eta diktadorearen heriotzarekin amaitu zena.

Lehenengo denboraldirako legedi antiterrorista frankista urria izan zela aipa daiteke. Ez da harrizkoa aintzat hartzen bada erregimena temati aritu zela aurkari politikoaren desagerpen fisikoan. Halere, denboraldi horretako erregimenak bere ekarpena egin zion legedi antiterroristari. Horrela, berrogeiko hamarkadan, Bigarren Mundu Gerraren testuinguruan, esperantza faltsuek handitutako makiaren jardueratik hartuko zuen aipatutako legediak. Horren adibidea da 1943ko martxoaren

2. «Legedi antiterrorista cedista» gatik ulertzen dugu Confederación Española de Derechas Autónomas (CEDA) alderdiaren eraginpean Bigarren Errepublikako gobernuak 1934-1936 artean ezarritako legedi antiterrorista.

3. Gabriel Jackson egileak aipatu zuen 30.000 eta 40.000 arteko iraultzaile espetxeratu zituztela. Oстера, Hugh Thomas egilea zuhurragoa izan zen eta 30.000 bat iraultzaile atxilotu zituztela aipatu zuen.

2ko legea, hil bereko 16. egunean argitaratu zena *Boletín Oficial del Estado* (BOE) aldizkari ofizialean. Lege horren bidez erregimenak «asmo politikoak, sozialak edo terroristak» izan zitzaizketen delituak matxinada militarren delitu gisa tipifikatu zituen (BOE, 1943: 2.385). Aipatutako lege horren ondoren 1944ko kode penala agertu zen, zeinean delitu terroristaren tipifikazioa zein makiaren eragina era zehatzagoan islatu ziren (BOE, 1945). Azkenik, 1947an «terrorismo eta bidelapurreria»-ri buruzko legea agertu zen. Lege horrek garai absolutistan tipifikatutako bidelapurreriaren formula berreskuratzeaz gain (López, 1982: 11), errepresioa handitzea ahalbidetzen zuen gogortasun terminologikoa ekarri zuen (BOE, 1947: 2.686-2.687).

Berrogeita hamarreko hamarkadaren bukaeratik aurrera ETaren agerpenak isla izan zuen erregimenaren legedian. Horren adibidea da erregimenak 1943ko martxoaren 2ko eta 1947ko apirilaren 18ko legeak (aurreko lerroetan aipatutakoak) 1960ko ordena publikoaren legean batu izana (BOE, 1960: 13.405-13.406). 1963an 1944ko kode penalaren berrikuspena argitaratu zen. Horren ondorioz, terrorismoaren delituaren tipifikazioa garaiko testuinguru historikoari egokitu zitzaion (BOE, 1963: 5.887-5.888). Azkenik, nabarmentzekoa da erregimenak «terrorismo eta bidelapurreria»-ri buruzko 1968ko abuztuaren 16ko lege-dekretuaz egin zuen aurkezpena. Lege horren sarreran «gertakari berriei egokitzeko premia» aipatzen zen (BOE, 1968: 12.912). Aste batzuk lehenago ETak bere historiaren lehenengo hildakoak eragin zituen. Batetik, ekainaren 8an José Pardines guardia zibila (Morán, 1982: 13); bestetik, abuztuaren 2an Melitón Manzanos Gipuzkoako Brigada Politiko-sozialaren burua (Morán, 1982: 21).

Zehaztu dugun bigarren denboraldian (kronologikoki hirurogeita hamarreko hamarkadaren lehenengo bosturtekoarekin bat datorrena), bai ikuspuntu kuantitatibotik, bai ikuspuntu kualitatibotik erregimen frankista berantiarrak nabarmen handitu zuen bere legedi antiterrorista. Legedi antiterrorista oparoak etengabe aipatu zituen terrorismoa eta haren esanahi politikoa zein tipifikazio aldakorra. Aipatzen dugunaren adibideak dira 36/1971, 42/1971 eta 44/1971 legeak, 1973an berritutako kode penala edota «terrorismoaren prebentziorako» abuztuaren 26ko 10/1975 Lege Dekretua.

Gure iritziz, erregimen frankista berantiarrak legedi antiterrorista handitu izanaren arrazoa ez da mugimendu ezkertiarrek erregimenaren aurkako presioa (ekintza hilgarri edo ez hilgarrien bidez) handitu izana, Xavier Casals (2016: 147) egileak aipatu duenez, baizik eta erreformaren bidean zegoen erregimen frankista berantiarrak aurkari politikoaren desagerpen fisikoa bilatu beharrean haren errepresio ideologikoa lehenetsi zuela.

5. Trantsizioaren garaia, legediaren garaia

Frankismo berantiarraren garaian eraturako eta trantsizioaren garaian ezarritako erregimenaren erreforma politikoak aurreko ildoarekin jarraitzea ekarri zuen. Hau da, aurkari politikoaren desagerpen fisikoa baino gehiago haren errepresio ideologikoa lehenetsi zen, besteak beste, legedi antiterroristaren bidez. Horren adibidea da Espainiako Konstituzio jaioberriak terrorismoaren gaia jasotzea 13.3 eta 55.2 artikuluetan. Horrek zenbait ondorio ekarri zituen, Xavier Casals egileak

aipatu duenez:

En segundo lugar, el azote terrorista (con ETA como accionista mayoritario) también dejó su huella en la Constitución. Según el jurista Diego López Garrido su artículo 55.2 constitucionalizó «por primera vez en Europa, la suspensión de determinados derechos fundamentales en relación con las investigaciones correspondientes a la actuación de bandas armadas o elementos terroristas». De este modo, podían suspenderse derechos como la libertad personal, la inviolabilidad del domicilio y la de las comunicaciones. España, pues, fue el primer país europeo en el que se constitucionalizaron las medidas citadas (Casals, 2016: 559-560).

Trantsizioaren garaiko legedi antiterrorista oparoak frankismo berantiarrekoaren ildo errepresibo berari jarraitu zion. Horren adibidea da «talde edo banda armatuek betetako delituen harira hartutako neurri»ei buruzko 21/1978 Errege Dekretua. Lege horren bigarren artikulua ahalbidetzen zuen terrorismoaren delitua leporatzen zitzaizen akusatuak eperik gabe inkomunikatzea (BOE, 1978: 15.671). Jakina denez, neurri horrek gehiegikeria ugari ekarri zituen (Baby, 2012: 351-379). Agian kasu ezagunena Joxe Arregi Izagirrerena da. Polizia Nazionalak ETA militarreko kide hori gogor torturatu zuen bederatzi egunez Madrilgo Segurtasun Zuzendaritza Orokorreko egoitzan. Tortura horien ondorioz Joxe Arregi Carabanchelgo espetxeko ospitalean hil zen 1981eko otsailaren 13an (Albin: 2018).

Ez bakarrik esparru legegilea, terrorismoaren gaiak agertoki politikoa ere hartu zuen. Agian egoera horren aurrekaria izan zen Francorentzat bere urte-amaierako azken diskurtsoa izango zena. 1974ko diskurtso hartan Francok terrorismoaren gaiari buruz hitz egin zuen (Casals, 2016: 73). Gerora, trantsizioaren garaiko politikari batzuk termino berdinetan aritu ziren gai horren inguruan⁴.

Trantsizioaren garaian terrorismoa kriminalizatzeko obsesioa nabarmena izan zen. Estrategia ez zen berria. Errestaurazioaren garaiko erregimenak gauza bera egin zuen anarkistekin: «Los anarquistas eran enjuiciados no como miembros de un movimiento sociopolítico con el fin de un cambio social, sino como locos o criminales» (Bernecker, 1994: 172). 1977ko urtarrilaren 27an Terrorismoaren Errepresiorako Europako Konbentzioa gauzatu zen Estrasburgon. Espainiako Gorte Nagusiek 1980ko maiatzaren 9an berretsi zuten Europako zenbait herrialdek Konbentzian adostutakoa (BOE, 1980: 22.357-22.360). Konbentzioak bultzaturik arlo politikoaren gehiengoa terrorismoa asmo politikoarengandik bereizten aritu zen⁵. Horrela erakusten dute Licinio de la Fuente y de la Fuente diputatuaren hitzek. Garai horretan Alianza Popular alderdiko diputatua zenak honakoa adierazi zuen Legebiltzarrean «terrorismoaren gairako kode penalaren aldaketa» eztabaidatu zenean:

Hemos aceptado que la palabra «terrorista» desaparezca de la configuración objetiva de los delitos, para quedarse como simple título del objetivo general de la ley. Ello quiere decir que hemos estado de acuerdo con todas las posiciones que

4. Ikusi Francoren diskurtsoa hurrengo esteka honetan: <[http://www.generalisimofranco.com/ Discursos/mensajes/00023.htm](http://www.generalisimofranco.com/Discursos/mensajes/00023.htm)> (Kontsulta: 2019-7-16).

5. Agian Azañaren Errepublikak lehenengo pausoa eman zuen bide bihurtu horretan, asmo ezberdinarekin eman zuela pentsatzekoa den arren (ikusi lan honen «Monarkia edo Errepublika. Tresnak eta helburua ez dira aldatzen» atalaren bukaera).

han sostenido que es preferible configurar los delitos por sus circunstancias objetivas más que por la posible intencionalidad política que el terrorismo encierra. Yo creo sinceramente que ello contribuye a reforzar la acción contra el terrorismo, al que se configura no como un delito político, no como una modalidad más o menos violenta de la acción política, sino como un delito común revestido de especial gravedad que ninguna ideología política puede justificar.

Creo que mientras andemos buscando justificaciones ideológicas, patrióticas, idealistas de pasado, de presente o de futuro al terrorismo, no haremos otra cosa que debilitar la acción para combatirlo (*Diario de Sesiones del Congreso de los Diputados —DSC—*, 1978: 5.403).

Garai berekoa da «terrorismoaren aurkako borroka» deritzona. Orduan ere horrela aipatua. Horren adibidea da Rodolfo Martín Villak (garaiko barne-ministroa eta Unión de Centro Democrático —UCD— alderdiko kidea) «talde edo banda armatuek egindako delituen harira hartutako neurri»ei buruzko eztabaidan izandako parte-hartzea (DSC, 1978: 4.688-4.689). Borroka horren ardua zenbait politikarik bereganatu zuten (horietako batzuk demokraziaren babesle sutsu bihurtu ziren, garai frankistan goi-karguak bete zituzten arren⁶). Funtsean, politikari horiek jendarte osoaren inplikazioa bultzatu zuten aipatutako borrokan, frankismoak egiten zuen bezala (BOE, 1975: 18.118). Horren adibidea da Licinio de la Fuente y de la Fuentek (Alianza Popular —AP— alderdiko diputatua) izandako parte-hartzea «terrorismoaren gairako kode penalaren aldaketa»ri buruzko eztabaidan:

Es esencial no enturbiar la claridad de estas ideas para evitar los engaños en que puedan caer muchos, para no deformar la conciencia social, porque en relación con el terrorismo, como con todos los fenómenos sociales, no sólo hay que actuar con las leyes, sino también con las ideas y con las convicciones sociales. El Estado no podrá acabar con el terrorismo allí donde, por un defecto de presentación, encuentre el amparo de núcleos sociales. El Estado podrá eliminar prácticamente el terrorismo allí donde la sociedad se sienta identificada con ese objetivo. Así de claro.

Por ello es tan importante y alcanza tanta responsabilidad lo que los políticos digamos en estas y en otras tribunas sobre las acciones terroristas. Debemos tener en cuenta que hay discursos que al presentar una imagen idealizada o justificada del terrorismo pueden destruir lo conseguido con centenares de manifestaciones.

[...]

Y, finalmente, una ley, como instrumento legal, es sólo una parte del dispositivo contra el terrorismo. Es necesario que el dispositivo se complete con las acciones políticas necesarias por parte del Gobierno, con las actitudes congruentes indispensables por parte de los partidos políticos y con el rechazo social que merece y sin el que la sociedad perdería una parte de su razón para quejarse de sus consecuencias. Crear este espíritu es también una parte de nuestra responsabilidad que no acaba con la aprobación de una ley (DSC, 1978: 5.403-5.404).

Laburbilduz, XIX. mendearen bukaeratik XX. mendearen hasierara mugimendu libertarioarekin gertatu zen bezala, helburua zen aukera ideologiko zehatz bat deuseztatzea.

6. Besteak beste: Rodolfo Martín Villa, Licinio de la Fuente y de la Fuente edo Manuel Fraga Iribarne.

Halere, arlo legegile zein politikoan terrorismoa kriminalizatzeko ahalegin horrek kontraesanak ekarri zituen. Horren adibideak dira urtarrilaren 4ko 1/1977 Errege Dekretuaren bidez ezarritako Auzitegi Nazionala epaitegia edo abenduaren 28ko 82/1978 Legea, besteak beste. Auzitegi Nazionala terrorismo-delituak zuzenbide arruntaren bidez epaitzeko sortu zen arren, lehenengo unetik eragin politiko nabarmena izan zuen; izan ere, Ordena Publikoko Auzitegi (Tribunal de Orden Público —TOP—) frankista ordeztu zuen (BOE, 1977: 172-174). Bestalde, «Terrorismoaren gairako kode penalaren aldaketa»-ri buruzko 82/1978 Legeak terrorismo-delituak delitu arruntzat hartu zituen arren (BOE, 1979: 750-751), demokrazian zehar onartutako legediak kontrako ondorioa agerian utzi du. Hau da, eragin politiko argia zuen salbuespeneko legediak legedi arruntari eragin dio eta ez alderantziz:

Cinco Estados europeos [Erresuma Batua, Alemania, Italia, Frantzia eta Espainia] han llegado a desarrollar lo que podrá denominarse una *estrategia jurídica represiva* no tanto contra el terrorismo, como en el contexto del terrorismo, ya que la reacción ha desbordado los márgenes de este fenómeno para llegar a invadir el ancho espacio de la delincuencia *tout court*, e incluso del orden público (López, 1987: 55).

Atal honekin bukatzeko, aurreko lerroetan aipatutako guztiari gehitu beharko litzazkioke kausa-ondorio binomioa⁷ zalantzan jartzen duten aipamenak. Sophie Baby historialariak bildutako datuen arabera, trantsizioaren garaiko indarkeriaren kuantifikazioa honako hau izango litzateke: «Un minimum de 3200 actions violentes en sept ans, plus de 700 morts dont environ 530 provoqués par les seuls acteurs protestataires, constituant des chiffres qui mettent l'Espagne à la hauteur de l'Italie des années de plomb» (Baby, 2012: 427). Hau da, Babyren kalkuluen arabera, zazpi urteko tarte baterako indarkeria politikoaren ondorioz 700 hildakori (horietako 530 «ekintzaile protestari»-en⁸ ardurapean⁹) eta 3.200 ekintza bortitzi buruz hitz egingo genuke. Kopuru horiek Espainia, Italia edo Ipar Irlandako gertuko historian izandako hainbat gatazkarekin alderatuz gero, trantsizioaren garaikoak txikiagoak izan zirela ikusten da. Espainiako kasurako zenbait adibide aipatu dira lan honetan, besteak beste: «pistolerismoa» edo «1934ko urriko iraultza». Beste batzuk, are hilgarriagoak izan ziren, adibidez: gerra zibila edo ondorengo errepresio frankista. Italiako kasuaren harira, Babyk Italiako «berunezko urteak» trantsizioaren garaiko indarkeria-mailarekin alderatzen dituen arren, beste egile batzuek emandako datuek zalantzan jartzen dute ikuspuntu hori. Adibidez, Eduardo Gonzalez (2013: 412) egileak ematen dituen datuen arabera, 1975-1982 tarterako ezkerreko zein eskuineko talde italiarrek 9.000 ekintza baino gehiago burutu zituzten. Azkenik, Ipar Irlandako kasurako egile berak ematen dituen datuen arabera, 877 hildako egon ziren 1975 eta 1982 artean (Gonzalez, 2013: 506). Halere, aipatutako kasu guztietan ez zen legistatu trantsizioaren garaian egin zen neurri berean.

7. Lan honen sarreran aipatu denez, zenbait egilerentzat trantsizioaren garaiko legedi antiterroristaren gogordura indarkeria terroristaren gorakadaren ondorioa da.

8. Baby egileak bi indarkeria mota ezberdintzen ditu: batetik, Estatuarena (poliziek gauzatutakoa); bestetik, protestaria (ezkerreko zein eskuineko terroristek gauzatutakoa).

9. Honen harira aintzat hartu Espainiako Barne Ministerioak 553 hildakoren berri ematen duela trantsizioaren garairako («fallecidos por terrorismo indemnizados»). Ikusi hurrengo esteka: <http://www.interior.gob.es/documents/10180/1210621/fallecidos_terrorismo_indemnizados_02_01_2015.pdf/8e8df51d-947b-462a-a6d8-130e3f4d7f79> (Kontsulta: 2019ko uztailaren 16a).

6. Demokrazia ailegatu zen, eta ezer ez zen aldatu?

Jorratzen ari den gaiaren harira, aipatu beharra dago erregimen demokratikoaren garaian trantsizioaren garaiko ildoak jarraitu eta handitu egin dela. «Terrorismoaren aurkako borroka» deritzonaren pean gauzatutako legedi antiterrorista oparoak terroristatzat jo izan diren aukera politikoen kriminalizazioa ekarri du. Horrek delitu terroristaren egileari buruzko tipifikazio zabalago eta errepresiboagoa ekarri du. Horren ondorioz, zenbait giza eskubide murriztu dira. Agian, harrigarriena da behin ETA desagertuta legedi murriztaile hori desgaitu beharrean aplikatzen jarraitzen dela. Iraganean, legedi hori ETako kide eta ideologikoki erakunde horrekin bat zetozen pertsoneri ezarri bazitzairen ere, egun, horiei guztiei ezartzeaz gain rap-kantari edo txiolariei ere ezartzen zaie: «Actualmente, la persecución a la música *underground* y a la contracultura, es decir, a todo aquello que critique al *establishment*, es un hecho consumado» (Mota, 2017: 217).

Aurreko lerroetan aipatutakoak erakusten du «terrorismoaren aurkako borroka» deritzonak jendartearen esparru guztiei eragin diela. Baita ondorio kontraesankorrak ekarri dituela ere. Beste adibide bat aurkitzen dugu hain garrantzitsua den lexikoaren esparruan. Real Academia Españolak (RAE) argitaratutako hiztegiei begirada bat emanez gero, zenbait aldaketa deigarri ageri dira. Adibidez, hamarkadetan aldaketarik egin gabe, 1984an «terrorista» terminoak adiera berri bat bereganatu zuen. Adiera berri horrek aurreko adieren apolitizismoarekin apurtu zuen: «Dícese del gobierno, partido, etc., que practica el terrorismo» (RAE, 1984). Agian, GALen jarduerak (Baby, 2012: 417-420) zerikusia izan zuen honetan guztian. 2001ean «terrorista» terminoak aurreko adiera galdu zuen. Halere, urte hartan aldaketa adierazgarriena «terror» terminoan egin zen. Batetik, «Época, durante la Revolución Francesa, en que eran frecuentes las ejecuciones por motivos políticos» adiera honela geratu zelako: «Época, durante la Revolución francesa, en que este método era frecuente». Bestetik, termino horrek adiera berri bat bereganatu zuelako: «Método expeditivo de justicia revolucionaria y contrarrevolucionaria» (RAE, 2001). Hau da, ingeniari-tza lexikoa «asmo politikoa» eta «Estatua» hitzak terrorismoarengandik bereizteko. Azkenik, 2014an aldaketa nabarmena «terrorismo» terminoaren inguruan egin zen. Termino horrek hirugarren adiera anakronikoa eta surrealista bereganatu zuen: «Actuación criminal de bandas organizadas, que, reiteradamente y por lo común de modo indiscriminado, pretende crear alarma social con fines políticos» (RAE, 2014).

Laburbilduz, atal honetan aipatutakoak agerian uzten ditu politika, eta legedi, antiterroristaren izateko arrazoia eta helburua.

7. Ondorioak

Espainiako legedi antiterroristaren bilakaerari errepaso kritikoa egin ondoren, atera ahalko genukeen ondorio nagusia zera da: Espainiako historia garaikideko erregimen ezberdinek batez ere terroristatzat hartutako ideologia erreprimitzeko erabili dutela legedi antiterrorista (eta ez hainbeste delitu terroristaren egilea erreprimitzeko). Legegileak aipatutako asmoa izan du XIX. mendearen bukaerako anarkismotik erregimen demokratikora arte. Halere, emandako legedi

antiterroristaren garapenaren arabera, bi garai ezberdindu ditugu: lehenengoan (XIX. mendearen bukaeratik frankismo berantiarra arte), legedi antiterroristak ez zuen garapen handirik izan, aurkari politikoa fisikoki desagerraraztea lehenetsi zelako; bigarrenean, frankismo berantiarretik aurrera, legedi antiterroristak inoiz ez bezalako garapena izan zuen. Erreforma-fasean bete-betean zebilen erregimen frankistak Europako joerara egokitu behar izan zuen. Horren ondorioz, erregimenak aurkari politikoa desagertzea bilatu beharrean haren errepresio ideologikoa lehenetsi zuen. Francoren heriotzak Europako eredu zuzenbide-estatuaren ezarpena ekarri zuen eta berarekin legedi antiterroristaren garapen ikaragarria. Trantsizioaren garaiko legegileak indarkeriaren maila altuaren argudioa erabili zuen legedi antiterrorista justifikatzeko. Halere, lan honetan ikusi dugunez, kopuruek zalantza jartzen dute ikuspuntu hori. Aldiz, indartzen den ikuspuntua da garai horretan hasitako terrorismoaren gaiaren gairak politikak zehatz bati erantzuten diola. Egun, politikari, rap-kantari, txiolari edo mugimendu herriko baketsuak terroristatzat jotzen dituen politikaz ari gara. Erregimen demokratikoaren zutabeak giza eskubideen gabeziaren landan etengabe zuzkaizten dituen politika.

Fitxategiak

Boletín Oficial del Estado, 75. zk., 1943-3-16, 1943ko martxoaren 2ko legea.

———, 13. zk., 1945-1-13, 1944ko abenduaren 23ko dekretua.

———, 126. zk., 1947-5-6, 1947ko apirilaren 18ko lege-dekretua.

———, 231. zk., 1960-9-26, irailaren 21eko 1794/1960 Dekretua.

———, 84. zk., 1963-4-8, martxoaren 28ko 691/1963 Dekretua.

———, 198. zk., 1968-8-17, abuztuaren 16ko 9/1968 Lege Dekretua.

———, 205. zk., 1975-8-27, abuztuaren 26ko 10/1975 Lege Dekretua.

———, 4. zk., 1977-1-5, urtarrilaren 4ko 1/1977 Lege Dekretua.

———, 156. zk., 1978-7-1, ekainaren 30eko 21/1978 Lege Dekretua.

———, 11. zk., 1979-1-12, abenduaren 28ko 82/1978 Legea.

———, 242. zk., 1980-10-8, Terrorismoaren Errepresiorako Europako Konbentzioaren berrespena.

Diario de Sesiones del Congreso de los Diputados, 118. zk., 1978-7-27.

———, 135. zk., 1978-11-15, terrorismoaren gairako Zigor Kodearen aldaketa.

Gaceta de Madrid, 290. zk., 1934-10-17.

———, 332. zk., 1935-11-28, 1933ko abuztuaren 4ko legearen aldaketa.

———, 150. zk., 1936-5-29, 1933ko uztailaren 28ko legearen aldaketa.

Bibliografia

Albin, D. (2018): «Los policías que torturaron hasta la muerte a Joxe Arregi nunca fueron apartados de sus cargos», *Público*, 11-12, <<https://www.publico.es/politica/dia-tortura-policias-torturaron-muerte-joxe-arregi-apartados-cargos.html>>, (Kontsulta: 2019-07-16).

Aparicio, V. (2017): «La violencia política en la historiografía sobre la Transición», *Vínculos de Historia*, 6, 328-351, <https://www.google.com/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=1&ved=2ahUKEwj4_iaZ9_iAhXYA2MBHf_7BpgQFjAAegQIAhAC&url=http%3A%2F%2Fvinculosdehistoria.com%2Findex.php%2Fvinculos%2Farticle%2Fdownload%2Fvfh.v0i6.282%2Fpdf&usg=AOvVaw3zXCHmp2a_>

- ykQ7NtopjpwA>, (Kontsulta: 2019-7-16).
- Aparicio-Ordás, L.A eta Fanjul, M.L. (2016): «La primera legislación antiterrorista en España. La respuesta del estado español frente al terrorismo anarquista», *Cuadernos de la Guardia Civil*, 53, 5-20, <https://intranet.bibliotecasgc.bage.es/intranet-tmpl/prog/local_repository/documents/18602.pdf>, (Kontsulta: 2019-07-16).
- Arostegui, J. (2000): *La Transición (1975-1982)*, Acento Editorial, Madril.
- Baby, S. (2009): «Estado y violencia en la transición española. Las violencias policiales», in S. Baby, O. Compagnon eta E. González Calleja (ed.), *Violencia y transiciones políticas a finales del siglo XX*, Collection de la Casa de Velázquez (110), Madril, 179-198.
- , (2012): *Le mythe de la transition pacifique. Violence et politique en Espagne (1975-1982)*, Casa de Velázquez, Madril.
- Bernecker, W.L. (1994): «“Acción directa” y violencia en el anarquismo español», *Ayer*, 13, 147-188.
- Casals, X. (2016): *La transición española : el voto ignorado de las armas*, Pasado y Presente, Bartzelona.
- Casanova, J. (1996): «¿España como modelo de cambio?», in J. Ugarte (ed.), *La transición en el País Vasco y España. Historia y memoria*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 37-46.
- Casanova Ruiz, J. (2007): «República y Guerra Civil», in Josep Fontana eta Ramón Villares (zuz.), *Historia de España*, VIII. alea, Crítica/Marcial Pons, Bartzelona, 2007.
- García, G. eta Tusell, J. (1981): «Azaña: texto inédito contra la dictadura de Primo de Rivera», *Historia* 16, 58, 27-41.
- Gonzalez, E. (2013): *El laboratorio del miedo. Una historia general del terrorismo, de los sicarios a Al Qaeda*, Crítica, Bartzelona.
- López, D. (1982): «El modelo absolutista español», *Revista de Estudios Políticos (Nueva Época)*, 26, 57-75, <<https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/26692.pdf>>, (Kontsulta: 2019-07-16).
- , (1987): *Terrorismo, política y derecho. La legislación antiterrorista en España, Reino Unido, República Federal de Alemania, Italia y Francia*, Alianza Editorial, Madril.
- Martínez, A. (2015): «La legislación antiterrorista en la historia de nuestro Derecho. España y el fenómeno terrorista en los siglos XIX y XX», *Anales de Derecho*, 2, 1-42, <<https://digitum.um.es/digitum/handle/10201/51675>>, (Kontsulta: 2019-07-16).
- Morán, G. (1982): *Los españoles que dejaron de serlo. Euskadi, 1937-1981*, Planeta, Bartzelona.
- Mota, D. (2017): *Los 40 Radikales. La música contestataria vasca y otras escenas musicales: origen, estabilización y dificultades (1980-2015)*, Ediciones Beta, Bilbo.
- Real Academia Española (1984): *Diccionario de la lengua española*, Espasa-Calpe, Madril, XX. edizioa.
- , (2001): *Diccionario de la lengua española*, Espasa-Calpe, Madril, XXII. edizioa.
- , (2014): *Diccionario de la lengua española*, Espasa-Calpe, Madril, XXIII. edizioa.
- Tejera, C. (2018): «La deriva terrorista del anarquismo en España: Del culto a la libertad a la acción violenta», *CLIO. History and History teaching*, 44, 248-266, <<http://clio.rediris.es/n44/articulos/15Tejera2018.pdf>>, (Kontsulta: 2019-07-16).
- Thomas, H. (1967): *La Guerra Civil Española*, Ruedo Ibérico.
- , (1976): *La Guerra Civil española*, I. alea, Ediciones Grijalbo, Bartzelona.

